



Greba mugagabea egiten ari dira Cementos Rezolako eta Microliquid enpresetako langileak

HAMAIKA :: 01/07/2024

Cementos Rezolako zuzendaritzak 56 langile kaleratzeko asmoa duela jakinarazi zuen, eta Microliquid enpresak hogeit hamar langile kaleratzeko ditu, krisi-egoera batean kostuak aurrezteko argudioarekin.

Ostiralean abiatutako Cementos Rezolako Añorgako lantegiko langileen greba mugagabeak aurrera darrai, zuzendaritzak 56 langile kaleratzeko dituen asmoen aurrean. Enplegu Erregulazio Espediente (EEE) justifikatzeko deskarbonizazio prozesu bat egin nahi duela dio enpresak, baina langileek argi dute deskarbonizazio eta trantsizio prozesu bati baietz esaten diotela, baina langileekin adostutakoa baldin bada eta kaleratzerik gabe. Bestalde, Arrasateko Microliquid enpresan ere lanuztea abiatu dute, goizetik ekin diete mobilizazioei langileek. Ekainaren 19an, Microliquid-eko zuzendaritzak Enpresa Batzordeari jakinarazi zion Enplegu Erregulazio Espediente bat (kaleratze kolektiboa) aplikatzeko asmoa zuela, eta hogeit hamar langileri eragingo diela, krisi-egoera batean kostuak aurrezteko argudioarekin.

<https://eh.lahaine.org/greba-mugagabea-egiten-ari-dira>